




LARRE

H A S I E R

MOTZ

L A R R E T X E A

ETIK

n a r r a t i b a

o p e n i n g

LARREMOTZETIK

Narratiba, 84

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2014ko ekainean

Maketazioa:

Erein

Azaleko argazkia:

Pello San Millan

Azalaren diseinua:

Zuri Negrín

© Hasier Larretxea

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-668-4

L. G.: SS-755/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Hasier Larretxea

LARREMOTZETIK



Amatxi Leonitarengandik, zukanaino.

*Ertzak mundurako leihoak dira.
Orbaina beti aktiboan den oroitzapena da.*

MAHMUD DARWIX

*Iristen da une bat galderarik egiten ez duguna,
eta eginen bagenu ez luke ahotsik erantzunen.*

ANTÓNIO LOBO ANTUNES

BASERRIKO lanetan lagunduko ziokeenik izan balu, ez zela herrira jauntsiko. Hori dio amatxi Leonitak. Mandamenea etxe ttipiko lehen solairuko sofán manta more batek estaltzen du. Ez du garai haietako zalutasunik. Alaba Rosarioren laguntzaz jausten ditu sukalderainoko eskailerak, leun. Kallerin karrikako maldan kokatutako laugarren etxean bizi da, Putxiria eta Bentaberria etheen artean, bi semeekin batera. Iloben argazkiez hornitua dago ondoan duen mahaia. Ezkontza-argazkiak, biloben erretratuak, eta aurpegi zorrotzak sakabanatzen dira, bertzelako objektuei tokia irabaziz. Paretan, hiru seme-alaben komunioko argazkiak, zuri-beltzezkoak. Ahalketurik ageri da, zuritutako ilearekin ikusiko dugun beldur. Argigarria da, zuri-beltzean gordetako irudien garai haietarako duen azalpenetarako xehetasuna, eta nolatan, azken urteetako kontuetarako hitzen toteltasuna, nahigabezia. Bihozminaren atsekabea. Hitzak gehiegizkoak balitzaizkio bezala. Bizi ditugun garai hauetarako bere hitzak sobera balira bezala mintzo da, bere haurtzaro eta gaztaroa Laxkanberria baserrian atzendutako pote batean altxatuko balu bezala, eta han gorderik, atxikirik, aitzineko urteetan iparrorratz izandako esentziak. Ez da ez, Laxkanberria eta Mandameneatik aitzinatzen den ikuspegia berdina. Baserri lanetan lagunduko ziokeenik izan balu, Laxkanberrian jarraituko zutela, libre, pobre, baina

baserriko bizitzari zegozkien eginbeharrei eta ohiturei jarraipena emanez. Etxotoa edo Indakobordako familiarretatik hurbil. Ez zirela herrira jautsiko. Zoriontsuagoak zirela han, Artxea baserriaren gainaldean, larre zabalez eta azien-dez inguraturik. Martin senarraren osasuna herriko etxean egonkortuko zelakoan eman zion apezak meza nagusiaren ondotik, Mandamenea salgai jarriko zutelako berria. Martin senarra, baina, ez zen Lourdes alabak Mandameneako lehen solairuan prestatutako ohandzea ezagutzera iritsi. Gogoan du nire amak, nola, haur bat izaki, egunero, uneoro, kartoi pusketekin, arnasa hartzeko zituen zailtasunak errazte aldera, baserriko gurasoen logelara iristen zen aire itoa nolabait biziberritzen zuten. Baserriko aire-lasterrek ez zioten, antza, onik egiten. Herrira bizitzera aldatzekotan ziren, senarrarendako bizitza kalitate bat bermatu ahal izateko. Ez zuen, baina, seme-alaba eta emaztearekin herrirainoko ibilbidea egiterik lortu. Ez zen, oster, egunik iragan, nahiz eta seme-alabekin herrira bizitzera jautsi, Leonitak herriko baserri ingururaino itzulirik emanen ez zuenik. Bere pentsamendua Laxkanberria baserrian eta inguruko bide eta parajeetan gelditu zen, behin betiko. Ez ziren egunsentiak berdinak izanen, ez eta ilunabarrak ere. Ez zen egunik, nahiz eta giblean utzitako baserria herritik ezin ikusi, mendi magalera begirada lerratuko ez zuenik zendutako senarraren xerka, galdutako askatasunaren lokarriek itzalita. Bere izatearen zati handi bat mendi haien arteko zirrikitueta gelditu zen, senarraren azken hatsarekin batera. *Pastor* zakurraren fideltasunaren oroitzapenean. Baserri marroikararen

gibelean ageri da, baserrian bizi zireneko oroitzapen bakanetarikoa den argazkian. Larrean, arropa hedatzen. Xehatu ezinezko zamarekin jausti zen herrira bizitzera Leonita. Urte hauetan guztietan husterik izan ez duen atsekabearekin. Malenkonia leun, ezti, hauskorrarekin.

Trenco una branca.

ANIMIC

JATORRIAREN sinesmen markak begi bazterretan zelatari izanen ditugu iraganeko erretoak sendatu eta garbitzera iristen ez bagara. Nora joaterik jakinen bagenu, nondik gaitozen asmatzerik genuke. Iturburu oro argiztatuz gero, gure egin ditugun lelo, ereserki, eta melodien durundak ulertu eta aldarrikatzera iritsiko ginateke. Bizitzan emandako lehen pausoetara bueltatzerik bagenu. Haurtzaroko arriskurik gabeko oihartzunean ezinezkoa zitzaigun erortzea, zelatan gennituen amaren esku leunek zuzentzen baitzuten erorketarako joera hura. Hitzek isiluneak baino eragiten ez dituztenean, azken hitzaren lehen sententzia mahai gaineratzen da. Zirriritu (berri) bat, ireki berria den amildegiaren islaren zimurra, egurrezko mahai zaharkitu marradunean.

KANILAKO urik ez hartzeko, edalontzikoa epelago dagoela. Hiru egun ospitalean gau eta egun iragan ondotik ohantzean kuluxka egin ondotik, franelazko maindirepetik sukalderraino jarabea hartzeko deia egiten dit. Laguntzaileak zaindu behar direla. Ez dela alaba okerrago izanen, etxean gau bat lo egiten badu. Bihotzak hala eskatzen diola. Senarrak ez dio nehoiz ere kontrakorik adierazi. Ez du ulertzen sufrimenduak goxatzea behar duela. Minak ondoan maitasuna behar duela. Maitasun keinuak. Bizitzak aitzinera darraiela badakigu. Ez duela hortaz zertaz onera egin. Bere ama enbolia baten ondotik mendian goiti nola abiatu zen oroitarazten digu, emakume indartsu eta gogorra zela. Bakarrik bizi nahi zuela. Inoren laguntzarik behar ez zuela. Familiako berotasuna garrantzitsua dela. Hurbiltasun horrek birikak haizatzen dituela. Ontasunak on egiten duela. Ospitalean egunak iragaiteko balio behar duela. Hobe dutela herrian gelditzea, amatxik negarrez ikusi baino. Autoan hurbilduko dituzte Iruñeraino. Prudentzio bisitatzera hurbiltzen gara ama, anaia eta hirurok hirugarren solairura. Amatxik herriko apezaren bisitarekin hartutako poza aipatzerakoan, “apez eta fraileak bele hegal gabeak” erantzuten digu segidan, ohantzetik. Ez zaio umorerik falta. Patxi ea noiz ikusten dudan Madrilen. Urteak dira bizitzera joan zela, bizitzaren zangalatrabei aitzin egiten diola. Noizbait aurkezpenen batean Arraiozko herria aipatzerakoan buruarekin baietz egin ei du. Herriko gazteen artean, bera zen bestan solasera hurbiltzen zitzaidanetako bat. Superazioa pentsamendurik hoberena da. Bizitzarekiko armarik hoberena.

Beldurrei aitzin egin ez banie ez nintzela Madrilen biziko, erantzuten diot amari. Diagnostiko onegirik ez nuela garai batean. Burua kartzelarik okerrena dugula. Batzuetan hitzak kausitzea ez da batere lan erraxa minak eta eritasunak gain hartutakoaren aitzinean. Zer erran ez dakigula gelditzen gara. Naturaltasunarekin, baina, aitzin egin diezaiokegu ezein egoera deserosori. Bakoitzak sentitzen duena erratea eta egitea da hauturik hoberena, duinena. Norberaren baitakoei hitz egiten utzi ahal izatea.

ARGIA joaten zen neguko gau horietan, medusak hazten ziren paretetako zirrikituetan, non hatz erakuslearekin jarraitzen nituen nire baitako akuariuma osatuz. Berrogeita lau neurriko bortzegiek, baina, hausten zuten behin-behineko denbora-pasa hura. Oholtzan, mesanotxean altxaturik nuen esku pilota eroriko balitz bezala, zola higatuak errodutzen ziren egurrezko aulkiaren ertzetik nire izter zabalak ezkutatzera behartzeraino. Bedeinkatutako ereinotzak ezer guttirako baliu zuen trumoi hotsen iragarpen durundarengatik nire saihetsetan barneratzen ziren hatz meharren arnasa moztuarendako, inoiz aurre egin ezin dionaren prozesioarendako. Gurasoen logelako aurrealdeko paretan oihan bat itzal irudikatzen zen, film mutu baten gisan. Derrapatzeren bat, urrunean. Burukoarekin etendako marruma-haria. Ez dakit bere bizar luzeak ziztatzen ninduelako utzi ote nion musu

emateari, ala bera izan zen erabaki horren erantzulea. Ez zidaten bere atzaparrek inoiz ere itzalik egin. Estimuan ditut besarkatzen diren aita-semeak.

BADIRA bete gabeko absentziak, osatu gabeko iragana aireztatu gabeko geletan, non hariztietako sakontasuna baino arnasterik ez den. Asfaltatu gabeko bidexkak, udalerriko aurrekontuek ez baitute kilometro koadro guztiak atontzeko adina eman. Errepidea lurrezko zola bat bilakatzen den une beretik bortzegien neurriak lohiaren arrastoa uzten du, eta horren arabera, finkatzen ahal da auzuneko ibiltarien mugimendu errolda, egunerokoa. Badira ireki gabeko atea, zabaldu gabeko leihoak. Berriz ere piztu gabeko telebista zaharkituak. Paretan zintzilik jarraituko ez duten ehiztarien argazkiak. Ematen du, kajoak, armairuak, logelak bere horretan uzteak, metatutako errauts biloak lege, iraganaren erretoak ezkutatuko dizkigula. Gogoan ditut, larunbat arratsaldeetako bisitak, Mamutetik bueltan. Eta kasik beti, pilotaren talka frontoian. Solasaldien sakoneko doinu gisa, garaian garaiko pilotarien esku-kolpeen maiztasuna. Edo horren orde, aizkorakadek estaltzen zituzten esaldiak korapilatzeke ezintasuna, komunikaziorako abilezia kamutsa. *Ongi, ongi*, larunbateroko erantzuna. Sukarrarekin izan ala buruko minaren ziztadek buruko hemisferioak zeharkatu, horixe zen asteroko erantzuna. Hogeiko hamarkadan

sortzeak minimizatu izan ditu kalte kolateralak. San Juan Xarura. Zenbatetan ez ote duen aitak errepikatu ez dagoela gaur egun hura bezalako emakumerik. Garai haietan bi gizonen indarraren parekoa omen zela harena. Emakume puska, zaildua.

Amatxi Teodoraren hileta-elizkizunaren egunetik ez gara aireztatu gabeko etxera itzuli. Urtaroak txandakatu dira ordudanik, neguko izotzak geldiarazi ditu eskualdeko erreka ondoko baratzetako barazkien ontze prozesuak, Bidasoa errekek gainezka egin du. Biloaren ondoan, bizarra dugu bidaia-lagun, eraberritutako N-121-A errepidetik barna. Jada, ez da Pantxoa eta Peioren doinurik aditzen autoan. Ez eta Mikel Zabaltzaren oroitzapenik ere aitaren esanetan, laurogeiko hamarkadaren hasiera haietan gorpua Bidasoa errekan aurkitu baino lehen Guardia Zibilek nondik bota zuten seinalatzen zuenean puntu beretik iragaiten ginen aldi orotan. Ez dakit inork lorerik eramanen ote dion hilerrira oraindik. Ez dut gogoan hilobia non duen ere. Kontu kontari ibili ginen. Ongi ote zegoen galdegin al nion, noizbait, nonbait, nolabait?

PIZTUTAKO argizariaren iraunkortasunarekin irekitzen ditugu asmatutako parajeak trumoi eta tximista gauetan, non debekatua dugun leihoak irekitzea. Gure ertzen mugak iraganaren euskarri baino ez dira. Korapiloetara lerratzen gara,

arnasbide oro itoz. Adarrik puskatu gabe hegan egiterik bagenu. Itzulerek, arropa eta maskararik gabe, oharkabean, zeharkatu gabeko parajeetarik oinutsik iragaitea ahalbideratuko balute. Beldurrik gabeko adeitasun onberan, non zauriak ez diren arrakalak, taupaden frekuentzia desberdinak zementuarekin tapatu beharreko murrak ez bezala. Behin betirako estalitako zuloek ez dizkigute iraganeko amildegia ikusten utziko. Zaratarik egin gabe, basoak zeharkatzen jakitea, neurrigabeko harrabotsik gabe, bizitzen ikastea.

BORTZEGIAK kotor-kotor jaunzteko, euripean ibili ahal izateko. Lohitutako bideetatik barna, salbu irten ahal izateko. Oinetako xixtrinagoak, hala ere, beti izan ditut mai-teagoak. Koloredun oinetako lauak, mendi arteko bizitza baterako egokiegia ez zirenak. Tipi-ttipitandik maite izan dut laprast egitea. Bizitzaren zirrikituetarik barna, ipurdiko beheiti lurreratzea. Nire kasa, helmuga zehatzik gabe, goizaldeko orduetan, Citroën auto zaharra, gidatzea Anariren *Gure mundua* kantua behin eta berriz. “Kazkabarra ari du/ goizalbaren betazalean.// Zure bizitzaren/ parabrisean”. Badaezpada ere, bortzegi pareatzen dut maletategian. Faroen argia iparrorratz bakarra den gauetan, ez da hain erraza basurderik harrapatzea. Orein-haragiarekin goizalbaraino irautea.

OINORDEKOTAKO eraman zuten bi urte zituela haraneko punta batetik bertzeraino. Aldameneko baserri ingurutik Laxkanberriara. Bertan, bere izen bereko amatxik zuen babesten osaba Bibianoren aitzinean. Behin, herritik berandu iritsi zen baserrira. Osaba lotan zela uste zuen, baina, bere logelatik oihu batean deitu zion. Berriz ere halakorik ez egiteko argi eta garbi utzi zion, begirada zuzen batekin. Beldurraren beldurrez gainean pixa egin zuen. Dardar batean itzuli zen bueltan amaxiren besoetara. Urteen bueltan zazpi seme-alaba izan zituen berak. Hirugarrena, oinordekoetako joan zedin proposatu zioten. Semeak kontzientzia zuenean baietz erraten bazuen onartuko zuela, ez lehenago. Berak hautatu zezala nahi zuen, ez baizik, halabeharrez eraman zezaten berarekin egin zuten moduan. Bizi izandako sufrimendua ez zuen urteekin atzendu. Azkenean, bertze iloba batek bete zuen eskakizun hura. Seme-alabarik gabeko etxaldee jarraipen bat emate aldera egiten zuten garai batean, bera hautatuko zuten ume horrek pairatuko zituen ondorioetan pentsatu gabe. Amatxi bizi zen artean ez zuen behin bakarrik ere aipatuko nola eraginen zion bizitza-kontzepzioan hautu horrek. Tikitan guraso eta anai-arreben eskutik faltan izan zuen maitasuna seme-alabei eman ahal izatea bertzerik ez zuen gomutan.

EGURREZKO harriak baino ez nituen bizkarreratu lutuaren aitzineko urteetan. Australiar aizkolariak ikustearen grinak

bultzatuta, nahiz eta ibileraren toteltasunak zelatatu, katuak gortinari nola, hala atzaparkatzen nion zutik zen egur hezeari ilunabarra aizkoraren norabidekoarekin. Urteekin, baina, aizkorak ez zuen nire baitako adar-korapiloak askatzeko lain egiterik. Sastrakak hertsiegiak, iragangaitzak ziren erremintaren sinesmen erritualendako. Erran beharreko guztiak, harri jasoaldi baten erantzunarekin asebeteko balitz bezala. Izan ez garenaren eta izan gintezkeenaren oroitzapena biziberrituz atxikitzen gatzaizkio aizkora kolpe bakoitzak goersten duen islaren proiektzioari.

ATE BATEK oroitzapen ekaitza irekitzen digu; bertze batek, berriz, arnasa kristalezko apaingarri loredunetan itotzen digu. Sinesmen osoa eltzaur atzapar batekin itaundu genuen, fideltasuna eskuekin ez bertze ahoratutako jakien urtsutasunaren parekoa izanzen zelakoan. Letaginen bilduma egitera abiatu ginen, ilargi beteko gauetan otsoaren uluak koilareekin izenpetuz. Oharkabea, amaierarik gabeko sugarren musugorritasunean, azken gaztaina jatean egindako promesa iheslaria bilakatu ginen, eskutokiak trabatu, eta haiek ireki ezinik, eskuak gure aurpegiaren mapa bilakatu ondoren. Aurpegiak, aldiz, oinen ordezkualdatu zitzaizkigun. Ez genuen ate egokia irekitzen asmatu. Ez eta bizitzaren betierekotasunaren edabea garaiz prestatu ere. Ez gara kontu zahar bat baino. Ilargi beteko gauetan herriko baserri inguruetan

bere agerpena egiten duen haurraren argi-islaren oroitzapen urruna baino ez.

ERREKAREN meandroen neurrira osatzen genituen larunbateroko familia bisitak, zeintzuetan, egungo errepide moldaketarik gabe, gaur egun ezinezkoa zaigun lorategi eta igerilekudun helmuga hartara iristen ginen. Izeba Juanitak berarekin eramaten ninduen lo egitera. Ez zion ezer ere zor iraganari. Haranera arnasa hartzera itzultzen zen. Ez zen inoiz kexu izan eritasuneraino eramandako lan baldintza kaxkarrez. Senarraren absentziez. Nahiz eta behin baino gehiagotan erregutu, amak kontatuko ez zion sekretuaz. Errekaren ur emariak ez gaitu eramaneen orduko kotoizko jertseetara eta Argentinatik ekarritako larruzko Larretxea gerrikoen berotasunera. Tunelek zeharkatu dute sostengatzen ez zen iraganaren ehun familiarra. Ez da eskertzetarako, besarkadetarako azkenbururik gelditu. Ateratako sagar erreek mahai gainean darraite, ukitu gabe, euri jasek eragindako kalteek bezala. Izebaren eskuak iritsi gabeko erantzun ikusezin bilakatu dira.

“IRRIBARREA errepresioaren porrota da”. Enrique Vila-Matasen honako oharra irakurtzearekin bat, ekidinezina